

HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK JASOTZEKO FITXA

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

1. Erakundearen izena:	MAIER
2. Sektorea:	Automozioa
3. Langile kopurua:	950
4. Webgunea:	https://www.maier.es/eu/
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	Plastikozko piezen dekorazioan, eta automobilgintza-industriarako injekzio-molde konplexuak ekoizten ditugu. Honako teknologia hauekin lan egiten dugu, besteak beste: kromatua, pintura, laser-grabaketa eta hot-stamping.

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Koldo Kortabitarte
Helbide elektronikoa:	kolkor@maier.es
Telefonoa:	946259200

1. Praktika onaren titulua:

Langile berrien harrera eta jarraipena.

2. Praktika onaren azalpena:

Zer da? Zertan datza?

Nondik dator?

Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?

Maierek adostuta ditu hizkuntza-eskakizunak. Euskara jakitea derrigorrezkoa da barrura begira komunikazio ardura giltzarriak dituztenentzako; batzarrak gidatzen dituztelako, beraien menpe lantalde eta pertsonak daudelako, pertsonen arretako zerbitzuak betetzen dituztelako eta kanpora begira ere komunikazio ardura izaten dutelako.

Horretarako lanpostu bakoitzari dagokion derrigortasun gaitasuna esleituta dago eta jarraipena egiten zaio.

Hilero langile berrien sarreran jarraipena egiten da. Harreran langilearen euskara-maila erregistratu eta egiaztatzen da. Mailaren arabera euskara-klaseak eskaintzen zaizkie.

Hilero egiten den Euskara Batzordean sarrera berri hauen jarraipena egiten da.

Harrera gidako puntuetako bat ere bada.

Urteak daramatzagu dinamika honekin eta emaitza oso positiboak izan dira. Etengabeko jarraipena egiten zaie langile berriei eta euskara-maila guztiz betetzen ez dutenei, euskara-klaseak eskaintzen zaizkie eta denek probetxua ateratzen diete.

GRH01011



HARRERA GIDA GUÍA DE ACOGIDA



21 berrikuspena
2017



Maier Gernika Plantako eta MTC-ko hizkuntza

HELBURUA

- Maier erakundeko lan hizkuntza Ajanqizen euskara izango da.
- Maier erakundearen euskararen erabilera zehaztea eta arautzea.
- Barne jardunean euskarari lehentasuna ematea eta kanpo jardunean ere, aukerak daudenean, euskarari lehentasuna ematea.

Ahal denean sortu zure lana euskaraz



Eskatu Maierreko HPO liburuxka zure arduradunari edo harrerari!!!

ZERTARAKO

- Langile guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko, Gutxienez euskara ULERTZEA.

ZELAN

- Laneko batzarrak, e-mailak, aktak, elkarrizketak, etab. euskaraz eginez.
- Kontratazioan irizpideak ezarri, euskararen trebakuntza-planak ezarri eta jarraipena eginez.
- Baliabideak egokitu lana euskaraz egiteko.
- Aginte panelean helburuak txertatu eta jarraipena eginez.
- Inguruko hornitzaile, partner, administrazio eta besteekin euskarazko harremana sustatuz.
- Maier Euskara Batzordearen laguntzarekin.



KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA